

## BASO-PESTA

Baso piñti batzuek  
 beiñ zuten itzegin,  
 pesta zarrrik ez zediñ  
 galdu ta desegiñ,  
 bear zala pentsatu  
 zerbait jostaketa,  
 aztu zediñ basuan  
 zegon berriketa;  
 ala, erbiyak zuben  
 alcharikan esan,  
 bakoitza bere aldez  
 ondo pentsa zezan,  
 nork berak emateko  
 bere iritziya,  
 jar zezayon pestari  
 bide irikiya  
 aditu zan ondoren  
 basurdean otsa,  
 sendo eta lodiya  
 aterarik boza,  
 esanaz iñorekin  
 ez dediñ utsegiñ,  
 bear diyogu zakur  
 zar bati otsegiñ;  
 agiyan lezaiguke

iritzi bat eman,  
 esan ezkeron nola  
 gaur arkitzen geran:  
 gero otso zar bat zan  
 itzakin gelditu,  
 zeñak zituen piñti  
 guztiyak arritu:  
 ain zan egoki eta  
 chit arrazoiz mintza,  
 denak irrintziz zuten  
 jaso onen itza;  
 diyo chakurrak ez du  
 boto eta itzik,  
 zeña geldi liteken  
 etorri nai ezik;  
 dagola bere leku  
 gogozko zarrean,  
 guk emen erabaki  
 dezagun pakean;  
 aginte buru on bat  
 bear degu jarri,  
 gure pestetan arki  
 ez gaitezen larri:  
 nola dan indartsua  
 ta bildur gabea,

gure alkate jar-ko  
 degu basurdea;  
 denak dakigu dala  
 biziro zuzena,  
 ta bere esku utzi  
 dezakegu dena;  
 denak arturik ontzat  
 otsuak esana,  
 ta iritzi au zala  
 ederki emana,  
 berriroitzen dirade  
 irrintz ta arrantzak,  
 eri zezan asto bat  
 anketik arantzak;  
 naspilla bat sortu zan  
 arantzaren bidez,  
 pišti denak andikan  
 joan zitezen iges;  
 desegin zan billera  
 eta pišti-pesta,  
 zalako zori-gaištoz  
 eritze au gerta:  
 astoa gelditu zan  
 basuan bakarrik,  
 etzeukalako bere

anketan indarrik;  
 eta laguntzik gabe  
 arkitu zanean,  
 miña sentirik bere  
 ankeko zanean,  
 asi zan arrantzaz ta  
 pullaka lurrean,  
 otza sentitu arte  
 bere muturrean:  
 asi ziranerako  
 lagun lenak biltzen,  
 astoa kemen gabe  
 zijuan isiltzen,  
 eta oñazearen  
 bidez, illtzen, illtzen.

. . . . .

Gertaera onek du  
 erakusten garbi,  
 denboraz bear dala  
 laguntzera jarri,  
 naiz ibilli dantzan ta  
 darigula farra,  
 pestak lezake izan  
 bere azken charra.

JUAN IGNAZIO URANGA.